



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

OnduBide 2030

*Maddi Barbara Zuloaga Camarero,
Igor Gorrochategui Garmendia,
Maidar Markuleta Gorostiza*

143-150 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.18>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



OnduBide 2030¹

Maddi Barbara Zuloaga Camarero, Igor Gorrochategui Garmendia, Maider Markuleta Gorostiza
Humanitate Digital Globalak
Mondragon Unibertsitatea

Laburpena

OnduBide 2030 proiektua arazo globalen aurrean gazteen inplikazioa zalantzan jartzetik sortu da, Agenda 2030aren eraginkortasunaren inguruko eztabaida sustatzeko eta ikuspegi kritikoa garatzeko. Izan ere, proiektu honen bidez, gazteen eta instituzioen arteko lotura indartzea eta politika publikoetan haien ahotsa txertatzea bilatzen da. Ikerketa honek, konkretuki, Garapen Iraunkorreko Helburuek gazteen artean duten eragina aztertzen du. Horretarako, batetik, unibertsitate-ikasleak zein zerbitzu aurreratueta profesionalak elkarrizketatu dira; bestetik, eztabaida eta parte-hartzea bultzatzeko, jardunaldi ireki bat antolatu da; bertan, parte-hartzaileek proposamenak plazaratzeaz gain, irtenbide posibleak ere hizpide izan dituzte. Emaitzek erakusten dute gazte gehienek urrun sentitzen dituztela Agenda 2030 bera zein Garapen Iraunkorreko Helburuak, eta, ondorioz, inplikazio eskasa dutela ekimen horiekiko, gizarte-erronken inguruko interesa eduki arren.

Hitz gakoak: Gizartea, 2030 Agenda, Garapen Iraunkorreko Helburuak, Instituzioen lotura, arazo globalak.

Abstract

OnduBide 2030 emerged from questioning youth involvement in global issues, aiming to foster debate on the effectiveness of the 2030 Agenda and develop a critical perspective. This research examines the impact of the Sustainable Development Goals (SDGs) among young people through surveys and interviews conducted with students and professionals in advanced services. The results indicate that most young people feel distant from this initiative, leading to low engagement. To promote discussion and participation, an open forum was organized, where participants developed proposals and solutions. This project seeks to strengthen the connection between young people and institutions and incorporate their voices into public policies.

Keywords: Society, 2030 Agenda, Sustainable Development Goals, Institutional linkages, global issues.

1. Sarrera eta motibazioa

OnduBide 2030 Euskal Herriko Agenda 2030aren aliantza-planean kokatzen den ikerketa-proiektua da. Ekimen honek Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) gizareratzea eta gazteen ikuspegia txertatzea du ardatz.

Ikerketaren helburua gazteen engaiamendua eta inplikazio falta aztertzea da, bereziki GIHehiko duten jarrera aztertuz. Horretarako, AS Fabrik ekosistemako gazteei erreparatu diegu. AS Fabrik Mondragon Unibertsitateak (MU) Zorrotzaurreko irlan duen campusa da. Bertan, Bertan elkartzen dira MUren lau fakultateetako hiru (Enpresagintza, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) eta hiri laborategiaa. Ikerketan aztertu ditugu hiru fakultateetako zenbait ikasleren eta hiri laborategian lanean diharduten zerbitzu aurreratueta profesionalen ikuspegiak.

Agenda 2030aren helburuak gazteei hurbiltzea eta haien konpromisoa sustatzea funtsezkoa da etorkizunera begira. Gazteen ikuspegiari erreparatuz, OnduBide 2030 proiektuak zubi-lana egin nahi izan du gazteen eta Garapen Iraunkorreko Helburuen artean, haien ikuspegia jaso eta beraien parte-hartzea suspertzeko.

¹ Proiektu hau aurrera eraman ahal izan genuen ArantzazuLaben finantziazioaren bidez. Gurekin batera aritu ziren Uxue Barriola eta Urko Retegi, proiektu hau gurea bezainbeste da haiena.

Lehenik, literaturari erreparatu diogu 2030 agendaren garapenean gazteen ikuspegiari erreparatu dioten aurrekariak aztertu ditugu (Blanco-Portela et al., 2017; Seva-Larrosa et al., 2023). Aztertu ditugu, halaber, Agenda 2030 aliantza plana eta Ondubide 2030 proiektuan engaiauturiko eragileen dokumentuak. Ostean, 12 elkarrizketa egin ditugu AS Fabriken ekosistemako gazteekin. Egindako elkarrizketen bitartez lortu da, Agenda 2030aren ezagutza garatzea, zerbitzu aurreratuen sektorea gertuagotik ezagutzea eta ikuspegi ezberdinak batzea. Azkenik, ikerketaren lehen fasea amaitutajardunaldi ireki bat antolatu dugu, *Open Space* metodologia erabiliz (Owen, 2008).

Ikerketak agerian utzi du gazteen parte-hartzea sustatzeko mekanismoak indartu behar direla, gazteek sentitzen duten urruntasuna murrizteko estrategiak garatuz.

Batetik, proiektua gazteen eta instituzioen arteko lotura sendotzeko premian oinarritzen da. Nahiz eta Agenda 2030aren helburuak gizarte osoari zuzendu, gazteen parte-hartzea mugatua da, eta haien ikuspegia gutxitan hartzen da kontuan. Hutsune horri erantzuteko, OnduBide 2030k gazteen ahotsa bildu eta erakundeetara hurbiltzea proposatzen du, haien beharrak eta kezak modu egokian islatzeko.

Bestetik, proiektua gazteen kontzientziazioa eta aktibismo soziala sustatzeko tresna gisa ulertzen dugu. Haien etorkizunean eragina izango duten erabakietan aktiboki parte har dezaten, beharrezkoa da gazteen ikuspuntuak eta proposamenak kontuan hartzea. Horretarako, metodologia parte-hartzaileak garatu ditugu, elkarrizketa eta eztabaidarako espazioak eskainiz.

OnduBide 2030ek erakusten du gazteen eta instituzioen arteko harremana indartu daitekeela, baldin eta haien ahotsa entzuteko eta ekimenetan parte hartzeko aukera eskaintzen bazaie. Gizarte bidezkoago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko, gazteen inplikazioa ezinbestekoa da, eta proiektu honek horretarako urrats esanguratsu bat eman nahi du.

2. Helburua

Ikerketa honen helburua gazteen eta Agenda 2030aren arteko harremana ulertzea da, aztertuz nola hautematen dituzten instituzioek eraikitako helburuak eta zein neurritan sentitzen duten parte-hartzeko aukera. Horretarako, gazteen iritzi eta behar ezberdinak bildu ditugu, haien ikuspegia agendan txertatzeko eta erronka globalekiko hurbiltasuna sustatzeko. OnduBide 2030 proiektua gazteen eta instituzioen arteko zubi gisa kokatzen da, bien arteko elkarrizketa eta lankidetzak indartzeko.

2.1 Aurrediagnostikoa

OnduBide proiektua bi eragileren erdian kokatzen da, bitartekari gisa. Hau da, gazteen eta Agendaren arteko zubi lana egiten du biek elkar elika dezaten elkarren egoera aztertuta. Ulertu nahi izan dugu gazteek zergatik ez dituzten gertu sentitzen erronka globalak eta zein den haien iritzia alboratzearen arrazoia. Agenda 2030aren baitan lanean jarduten duten eragileekin kontaktua mantendu dugu eta gure ekitaldira gonbidatu ditugu, gazteekin batera elkarlanean ari daitezen, haien ikuspuntua gertuagotik jasota.

2.2 Elkarriketak

Aurretik aipatu dugun hipotesian barneratzeko eta berau baieztatzeko edo ezeztatzeke, ikasle gazteengana eta zerbitzu aurreratuetan diharduten langile gazteena joatea erabaki genuen, lehen eskutik jasotzeko erantzunak eta era berean gure hipotesitik haratago joan eta errealitatea modu kualitatiboan biltzeko.

2.3 *Open Space*-a eta Emaizak

Aurreko puntuak azaldu ondoren, helburu guztiak barnebildu eta praktikan jartzen zituen formatu bat behar genuen. *Open Space*ko metodologiak (OST) aukera ematen du parte-hartzaileek gida dezaten saioa, auto-antolaketan eta askatasunean oinarrituta. Espazio irekian, eztabaidak modu organikoan garatzen dira, eta parte-hartzaileek energia naturala eransten diote elkarriketari. Horregatik, OST oso baliagarria da ingurune konplexuetan eta aldakortasun handia duten gaitetan.

3. Ikerketaren muina:

3.1 Aurrediagnostikoa

OnduBide 2030 proiektuaren oinarriak ezartzeko lehen urratsa aurrediagnostiko bat egitea izan da, gazteen eta erakundeen arteko harremana ulertzeko. Urrats honen helburua da aztertzea gazteek erronka globalekiko duten harreman emozional, intelektual eta soziala, baita Agenda 2030arekiko duten pertzepzioa ere. Prozesu honek aukera eman digu ikerketa behar bezala egituratzeko eta parte-hartze eredu berritzaileak diseinatzeko.

Lehenik eta behin, aurrekariei erreparatu diegu (Blanco-Portela et al., 2017; Seva-Larrosa et al., 2023). Ikusi dugu 2030 Agendaren inplementazioan herritarrek jokatu beharreko rolaren inguruko kezka zabala dela. Arreta berezia jarri izan zaio gazteen rolari, ulertuz gazteak izan daitezkeela Agendaren akuilua izan daitezkeela. Agenda gazteengana hurbiltzeko beharrezkoa da GIHak goi-mailako hezkuntza curriculumean integratzea eta egiten denean inpaktua du gazteek 2030 agendarekiko duten atxikipenean.

Bigarrenik, ingurune sozio-instituzionala aztertu dugu, bereziki unibertsitate-ingurunea eta AS Fabrik ekosistema. Harremanak estutu ditugu eragile nagusiekin, hala nola, ArantzazuLab, Unetxea, Dot, BAIC, La Perrera eta Global Shapers. Erakunde hauek guztiek, beren esparruan, erronka globalekin eta gazteen aktibismoarekin lotura dute. Haien ekarpenek lagundu dute askotariko ikuspuntuak jasotzen eta gazteek instituzio horiekin duten harremanaren izaera hobeto ulertzen.

3.2 Elkarriketak eta emaitzak

Gazteen begirada jasotzeko elkarriketak baliatu ditugu (Juaristi Larrinaga, 2003). Elkarriketen lanari heltzeko lehen pausoa galderen prestaketa izanizan da. Galderak modu zabalean egitea hobetsi dugu modu itxian beharrean. Izan ere, gure hipotesia zen. Horrela jendeak benetan pentsatzen zuena errazago islatuko zuela elkarriketetan.

Horretarako “entzun → pentsatu → esan → egin” formula erabili dugu.

Elkarrizketa batzuk taldean egin dira eta beste batzuk banaka, jendearen profilaren eta arloaren arabera. ikaslek taldean elkarrizketatu ditugu oro har oro har; zerbitzu aurreratuetan lan egiten dutenak zein aktibistak, berriz, banaka elkarrizketatu ditugu.

Ikasleen arloan, Humanitate Digital Globalak graduak eskaintzen dituen bi ibilbideetako jendea elkarrizketatu dugu. Alde batetik, global studies ibilbideko ikasleak elkarrizketatu ditugu eta beste aldetik digital humanities ibilbideko ikasleak. Global arloan ari diren ikasleei hiru elkarrizketa egin dira, hauetako bi taldeka (3-5 ikasleko taldeak) eta bestea banakakoa. Digital arloan, elkarrizketa bakarra egin da, taldekakoa. Zientzien arloari dagokionez, Industriari Aplikatutako Ingenieritza Fisikoa ikasten duten bi ikasle elkarrizketatu ditugu, biak saio berean bilduz.

Zerbitzu aurreratuei gagozkiela, Bilbon Agenda 2030aren eta GIHen inguruan interes berezia zeukaten hainbat gazte profesional zein aktibista identifikatu ditugu. Ikasleei moduan, elkarrizketak egin dizkiegu hauei ere, baina, kasu honetan guztiak bakarka burutu dira: Global Shapers komunitateko bi gazte, Unetxean lanean ari den Zuzenbideko ikasle bat, erakunde bereko langile bat eta Materially-ko langile bat, hurrenez hurren.

Profilen taula:

ELKARRIZKETATUEN PROFILAK		
Ikasleak	Aktibistak	Zerbitzu aurreratuetako profesionalak
- Global Studies: 3 elkarrizketa (2 taldeka, 1 indibiduala) - Digital Humanities: 1 elkarrizketa taldeka - Zientziak (Industriari aplikatutako ingenieritza fisikoa): 2 ikaslerekin elkarrizketa saio bakarrean	- UN Etxean lan egiten duen Zuzenbideko ikaslea (Diego) - UN Etxeako langilea (Arantza Acha)	- 2 gazte Global Shapers komunitatetik (Oscar Escallada,...) - Materially-ko langilea (Izaskun)

Elkarrizketa hauetatik guztietatik hainbat emaitza atera dira. Alde batetik, elkarrizketa guztietan errepikatutakoa sailkatu dugu. Beste alde batetik, desberdina zena bereizi dugu eta, azkenik, eztabaida sortzen duten gaiak zein adostasun-eragile direnak nabarmendu ditugu.

Elkarrizketa guztietan 5 elementu errepikatu ziren. Denetana azpimarratu da GIHak kontzeptu bezala ez direla oso eraginkorrak, oso instituzionalak direla. Enpresek mesfidantza sortzen dutela ere aipatu dute, nabarmenduz orokorrean enpresa zein instituzioek asko esan baina gutxi egiten dutela. Era berean, elkarrizketatu guztiek aipatu dute gazteek nahiago dutela gai hauen inguruan bakarka jardun, instituzioei eskutik helduta ibili beharrean.

Horrez gain, elkarriketatu batzuek nabarmendu dute ez dutela GIHein bat egiten eta eta ez direla horien izenpean borrokatuko; Agenda 2030a biztanleriari errua botatzeko mekanismo bat dela ere erantsi dute, erantzukizuna gizarte zibilari egozteko modu bat.

Eztabaida sortzen zuten gaiei dagokienez bi elementu azaleratu dira. Alde batetik, gazte mugimenduak badaudela diotenak. Hau da, agendaren aterkipean ez kokatzeak ez duela esan nahi agenda osatzen duten gaiekiko konpromisorik ez dutenik gazteek. Eta, beste alde batetik, proiektu instituzionalak gazte mugimenduetara sartzea zaila zela nabarmentzen dutenak. Oro har, kontzientzia egon badagoela nabarmendu dute elkarriketatuek.

Azkenik, bi izan dira erabateko akordioa sortu duten gai edo elementuak. Alde batetik, asko lantzen direla GIHa, baina, bereziki arlo akademikoan eta, era berean, jendeak lehentasunak dituela GIHean artean aukeratzekoan edo pentsatzekoan. Alegia, agendak bere osotasunean beharrez, agendaren alderdi konkretu jakin batzuek engaiarazten dituztela gazteak.

3.3 Open Space eta emaitzak

Elkarriketatetik eratorritako ondorio nagusiak plazaratu dira gero OSTan, etorkizuneko plana irudikatzeko abiapuntu baliagarria izango zirela iritzita. OSTan taldeetan eta dinamika guztietan hitz egin ziren kontzeptu eta ideiak jaso ditugu.

Open Space Technology (OST) metodologia irekia eta parte-hartzailea da, talde handian ideiak eztabaidatzeko eta arazo konplexuei modu autonomoan aurre egiteko aukera ematen duena (Owen, 2008). Parte-hartzaileek agenda finkatzen dute hasieran eta eztabaidak modu naturalean garatzen dira egunean zehar "bi oinen legea" oinarritzat hartuta. Metodo hau negozioetan, hezkuntzan eta komunitateetan erabiltzen da sormena eta lankidetzaz sustatzeko. Gurean, batez ere lankidetzaz sustatzeko erabili da.

Dinamika horrela antolatu dugu: taldeari goizean goiz biltzeko gonbidapena egin eta kafe batekin pizte saio txiki bat egin da, bakoitzari bere emozioak azalertzeko aukera utzita. Galdera handi batzuekin hasi nahi genuen, pixkanaka egun guztiko dinamika eta informazioa inbutu batetik pasa eta ondorio nagusietan ondorioztatzeko. Galdera nagusia hau izan da: Zer gertatuko litzateke elkartuko bagina?

Galdera nagusia, beste zenbait galdera osagarriekin lotu dugu, hala nola, zer partekatzen dugu, zerk mugitzen gaitu, zertarako gaude prest, eta zerk arduratzen gaitu. Hortik abiatuta, modu dinamizatu batean antolatu da eguna, arreta gehien ateratako eta gehien bozkaturako gaietan jarrita.

Lehenengo saioa, giza eskubideen gaineko arduraz ardaztu da Bigarrena, osasun mentalean eta haren inguruko baliabideen hausnarketan. Hirugarrena parte-hartze kanalen eta gazteen parte-hartze idealizatuaren inguruko gaien bueltan eratu da. Laugarrena, belaunaldien arteko problematikaren inguruan. Bosgarrena, problematika eta inkoherentzia globalaren inguruko hausnarketei buruzkoa izan da. Seigarrena, teknologia berrien inguruko auziaren bueltan egituratua da. Zazpigarrena, sorkuntzan aritzeko beharrez inguruan. Eta azkena, instituzioen inguruko eztabaida mahai gainean jarri nahian antolatu da.

Horiek horrela, eguerdian zein arratsaldean nahi izan duenak nahi izan duen gaiaren inguruan jarduteko aukera izan du. Talde bakoitzean, idazkari bat egon da eta ordu zehatz bat iristean elkarriketa amaitu eta dinamizatzailerak ordura arte esaniko guztiak jasotzeaz arduratu dira, gero analisi sakon bat egin ahal izateko.

OSTko ondorio nagusiak ondorengoak izan dira. Lehenengoa, gizartearen antolatzekeko modu indibidualari buruzko kezka da. Komunitateak egon badaude, baina, gaur egungo gazteriak zein pertsonen beraien joera eta diskurtsoetan indibidualismoaren nagusitasuna berretsi dute. “Bakarrik erantzuten gabilta edo ez gara ari ondo erantzuten?” Saioan plazaratutako galdera honek zuzenki jartzen du auzian komunitate borroka edo komunitate-erantzukizun baten beharra, batez ere, arazo sozial hauen aurrean eta goitik datozen proiektuei erantzuteko prozesuan.

Bigarrena, lehengoarekin zuzenki lotua dago: kolektibotasunaz ari garenean, bertan egotearen sentimenduaren erreakzioaz hitz egiten dugu. Adibide gisa hau atera da, esate baterako Athleticek, atletikek duen komunitatearen erantzuna. Honi erreparatuz, agerian daudenak nagusiki aisialdi hutsalari lotutako komunitateak direla nabarmendu da. Hortik ondorioztatu daitekeena da beharrezkoak direla kolektibo aktibistak, arlo sozialean inpaktu bat izan dezaketenak.

Hirugarren ondorioak denoi eragiten digu, herritarren sareen beharra atera baita mahai gainera. Herritarren sareen beharra mahai gaineratu zen. Sare herritarrez hitz egin da, argudiatuta instituzioak herriarekin lotu nahi izatea ez dela nahikoa, gure artean ere antolaketa beharra dagoelako. Horrela, sareen, proiektuen eta erantzunen aurrean, elkar laguntzeko sare bat egotea erabat baliagarria dela ondorioztatu dute parte-hartzaileek.

Azkenik, aukera eta esperientziaren beharra azpimarratu dute parte-hartzaileek. Batetik, kanpora begirako perspektiba lantzea, munduan antzematen diren joerei erreparatuz. Bestetik, munduko joerak gure errealtatearekin lotzea, begirada globala elikatuz eta sormenaren bidez aukerak zabalduz. Aniztasunaren garrantzia nabarmendu da, etorkizunari begiratzean aukerak irekitzearen garrantzia azpimarratzeaz batera.

4. Ondorioak

OnduBide 2030 proiektuaren emaitzek erakutsi dute beharrezkoa dela gazteei espazioak eta tresnak eskaintzea, non euren iritzia modu aktiboan adierazi ahal izango duten etorkizuneko erronkei buruz. Horretarako, tokiko mailan garatutako ekimenak sustatzea funtsezkoa da, Agenda 2030 bezalako nazioarteko politikak hurbilago eta eskuragarriago egiteko. Proiektu instituzionalek herritarren parte-hartzea sustatu behar dute, erabakiak modu inklusiboan eta parte-hartzailean eraikiz.

Era berean, gazteek instituzioekiko duten urruntasuna murrizteko, informazio eta sentsibilizazio kanpainak indartu behar dira eta guk horretan eman ditugu aurrerapausoak. Politika publikoak gazteen errealtatearekin konektatu behar dira, euren ahotsa entzunez eta erabakiguneetan espazio egokiak sortuz. Parte-hartze aktiborako metodologia berritzaileak bultzatu behar dira, hala nola eztabaida-taldeak, deliberazio-prozesuak eta gazteei zuzenduriko foro irekiak. Gainera, plataforma digitalen garapena funtsezkoa izan daiteke, gazteei parte hartzeko eta eztabaidetan aritzeko bide irisgarriagoak eskaintze aldera.

Azkenik, proiektu honek agerian utzi du gazteen eta instituzioen arteko harremanak etengabeko lankidetzara behar duela. Horretarako, gazteen beharrak eta kezkak etengabe jasotzeko mekanismo iraunkorrak ezartzea beharrezkoa da. Horrek politika publikoen eraginkortasuna areagotzeaz gain, gizarte demokratiko eta parte-hartzaileago baterantz aurrera egiteko aukera emango du.

Honako proposamen zehatz hauek identifikatu dira ikerketa proiektuaren emaitzen arabera: espazio fisiko eta digital berriak sortzea gazteen beharretatik; espazio hauek instituzioen araldaketa beharra asetzeko oreka bat mantenduko dute (bien beharren arteko oreka). Espazio komunitarioak bultzatzea bertako problematikak analitzatzeko eta bertako eragile zein banakoei erabakimen zuzena izatea ahalbidetzeko. Bertan gazteek harreman zuzena izango lukete, eztabaida-saioak antolatu ahal izateko;

horrela, gazteek foroak aurrera ditzakete, baina horiek gorpuzteko baliabideak eskaini behar zaizkie. Izan espazio, tresna digital, lan talde zein diru-laguntza. Horiek herriko etxeetan edo unibertsitate eta instituzioetan sortuak izan litezke. Bide batez, gazteei, euren intereseko gaien inguruan ikertu eta formatu daitezten eta oro har, egungo gizartea ulertu eta erronken inguruko konpromisoa areagotu ahal izan dezaten, baliabideak eskaini eta aukerak zabaldu behar zaizkie.

Berebat, beharrezkoa da plataforma digital parte-hartzaileak garatzea, gazteek euren iritzia modu anonimoan edo identifikatuan partekatu ahal izateko eta politika publikoetan eragiteko aukera izan dezaten. Hala nola, Decidim bezalako plataformak inplementatzeko baliabideak erakutsi eta eskaintzea adin batetik aurrera, horrelako webgune edo aplikazioak gazteei zuzenduriko galdeketak eta eztabaidak egiteko erabiliz.

Horrekin batera, garrantzia handiagoa eman beharko zaio tokiko ekimenak eta proiektuak sustatzeari, hezkuntza eta sentsibilizazioa indartzeari, aisialdi talde eta hezkuntza-ez formalean ibiltzen diren entitate zein gazteei. Adibidez, horiei guztiei, espazioak, laguntza ekonomikoa eta jakintza eskainiz gai hauen inguruan: parte-hartze aktiborako metodologia berritzaileak eta instituzioen eta gazteen arteko lankidetzak bideak.

Metodologiari dagokionez, ikusi dugu Open Space formatuak abantaila asko dituela profil ezberdineko jendearekin lanketak egin eta ideia berrien sorkuntzarako. Bertan ateratakotik, balio berrien beharra ondorioztatu dugu: esaterako, indibidualtasunetik taldekotasunerako aldaketa. Edota, *top-down* eredutik *bottom-up* eredu demokratikorantz jauzia egiteko beharra.

Proposamen hauek martxan jarritz gero, gazteen eta erakundearen arteko distantzia murriztu daiteke, eta Agenda 2030 gizartean errotuagoa izango da, gazteen benetako parte-hartzea sustatuz.

5. Etorkizunera begira zer

Prozesu hau aurrera eraman ondoren, ezinbestekoa iruditu zitzaigun geldialdi bat egitea eta geure buruari galdetzea: zer ikasi dugu esperientzia honetatik, eta zer erabilgarritasun izan dezake etorkizunean? Hipotesiari tiraka, elkarriketen bidez lehenengo eta Open Space metodologiaren bitartez ondoren, ondorio argi batera iritsi gara: gazteek etorkizuneko erronkei heltzeko nahi bizia dute, eta baita motibazioa eta grina ere. Hala ere, bidean oztopo garrantzitsu bat aurkitu dugu: espazio egokien gabezia eta lotura nahikorik eza erakunde, instituzio eta gazte profesionalekin. Hau da, nahi eta behar duten arren, askotan ez dute tresnarik ezta sare egokirik ere beren ahotsak entzunarazteko, parte-hartze erreal eta eraginkorra bermatzeko, edota etorkizuneko erronkei aurre egiteko ekimenak modu kolektiboan garatzeko.

Horren aurrean, uste dugu ezinbestekoa dela instituzioek eta erakunde ezberdinek gazteen parte-hartzea bultzatzeko eta beren potentziala errealitate bihurtzeko inizatiba berriak martxan jartzea. Ez da nahikoa gazteen interesak sustatzea; beharrezkoa da beraiekin elkarlanean aritzeko espazio sendoak eraikitzea, beren ideiak, kezkak eta proposamenak benetan erdigunean jarriko dituzten guneak. Horrez gain, unibertsitatearen rola ere nabarmendu beharra dago: ikerketaren bidez, gazteen begirada sakonago ulertzeko metodologia berriak garatu eta aplikatu daitezke, haien beharrak eta erronkak aztertzeke tresna egokiak sortuz. Hortaz, gazteen eta erakundearen arteko harremanak sendotu eta belaunaldien arteko transmisioa bermatu ahal izateko, ezinbestekoa da ikuspegi sistemiko batetik lan egitea, loturak sortuz eta gazteen parte-hartzea benetan eraginkorra izan dadin bideak irekiz.

6. Erreferentziak

Blanco-Portela, N., Benayas, J., Pertierra, L. R., & Lozano, R. (2017/). Towards the integration of sustainability in Higher Education Institutions: A review of drivers of and barriers to organisational change and their comparison against those found of companies. *Journal of Cleaner Production*, 166, 563–578. <https://doi.org/10.1016/j.jclepro.2017.07.252>

Juaristi Larrinaga, P. (2003/). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. <https://doi.org/10/15493>

Owen, H. (2008/). *Open Space Technology: A User's Guide*. Berrett-Koehler Publishers.

Seva-Larrosa, P., Marco-Lajara, B., Úbeda-García, M., Zaragoza-Sáez, P., Rienda-García, L., García-Lillo, F., Andreu-Guerrero, R., Manresa-Marhuenda, E., Ruiz-Fernández, L., Sánchez-García, E., Poveda-Pareja, E., & Martínez-Falcó, J. (2023/). Students' perception of sustainable development goals (SDGs) and the benefits for companies derived from their implementation. *Economic Research-Ekonomska Istraživanja*, 36(1), 2167100. <https://doi.org/10.1080/1331677X.2023.2167100>